

## Txillida Harvarden

*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-10-15: 26.

Eduardo Txillida eta Rafael Moneo, bi artista euskaldun, izan dira Estatu Batuetako Harvard Unibertsitatean Honoris Causa Doktore izendatuak izan direnak. Gertaera ederra euskaldunok poztutzeko.

Nere aldetik, Eduardo Txillida ezagutzen dut gertutik, (*Hablando con Txillida* eta beste) eta esan nahi ditut hitz bi. Egin dituen eskulturak toneladetan kontatzeko karga handikoak dira; baina ez da hemen hau bakarrik aipagarri, honek ikusleengan sortzen duen pisuaren dartada bakarrik. Besteak ikusten ari direna eskultoreak egin behar duenez edo, hori dena ideiatu eta burmuinetik gora igo eta eramateko gauza izan denak kemen haundia behar du izan, eta gero lan erraldoi hau doan tokira doala munduan zehar eramateko balio haundia.

Eta apaltasunean.

Hau da, batez ere, adierazi nahi dudana, Txillida nola ikusten dudana esaterakoan.

Egin duena egin eta gero, esku hutsik balego bezala ikusiko duzue bere esku haundi, kementsu eta jakintsuak galtzetako patriketan sartuta ezer egin ez balu bezala. Beti Pili Belzunze emaztearekin, ez zaio inoiz inon ahaztuko! Eta bere pipa, honi eutsita, hemendik zintzilik balego bezala ikusten dut askotan, deskantsuan edo barru azterpenean ari dela.

Beste aldetik, fededuna da.

Zerbaitek bereizten badu ongien, hau da. Sinesten du egiten ari denaz. Ez daki nola, baina ziur dago. Hemen dago genioa. Bere fedearen barruak egiten ari dena apalki eta kementsu izateko indarrak aureolatzen du.

Hau dena euskal baserritik datorkio.

Bere amaren ama, Juanatxo Eguren, Urretxuko Intzenetik jaitsi zen Donostiara, eta bi hotel sortu, Biarritz eta Niza. Sortu ondoren xuxen eraman ere bai, pertsonalitate handiz!, Porruak ere berak erosten zituen plazan! Berau du Eduardo Txillidak eredu nagusia. Bere gaurko Igeldo bidean duen etxeak, Intzenea izena du, Kantauriko itsasoa eta gure Goierriko mendietako baserria josi dituela dirudi bere etxetik ikusten duen "Haize Orrazia" erraldoiarekin.